

Jorge Alvarez Ruizek bere Tesia irakurri du

2016/05/26

Maiatzaren 25ean, eguerdiko 12:00etan Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Jorge Alvarez Ruiz Doktoregaiak bere doktore-tesia aurkeztu zuen Garaia Berrikuntza Guneko Auditorioan. Tesiaren izenburua: *Aplicación de técnicas de velocidad variable para la optimización del proceso de rectificado*, eta tesi zuzendariak: Ivan Gallego eta David Barrenechea. Gainera Bikain Cum Laude kalifikazioa lortu zuen.

Epaimahaia horrela osatu zen:

- **Mahaiburua:** Pedro José Arrazola Arriola (Mondragon Unibertsitatea) Dk. Jn.
- **Mahaikidea:** José Antonio Sánchez Galíndez (EHU-UPV) Dk. Jn.
- **Mahaikidea:** Maria Henar Miguélez Garrido (Universidad Carlos III de Madrid) Dk. And.
- **Mahaikidea:** Jokin Muñoa Gorostidi (IDEKO) Dk. Jn.
- **Idazkaria:** Jon Madariaga Landajo (Fundación Tekniker) Dk. Jn.

Tesi laburpena

Tesi honetako ikerketa lanaren helburu nagusia azterketa prozesuak puntuan jartzeko eta berauen optimizaziorako estrategiak garatzean datza, hurrenez hurren azterketa zilindriko eta zentrorik gabeko artezketetako sartze eta zeharkako prozesuak lantzen direlarik. Lehenbizi chattera murrizteko piezaren abiadura aldakorreko konbinazio onenak zehatz eta bizkor ebazteko gai den semidiskretizazio teknika garatu da. Ondoren prozesia agintzen duten hiru abiadura nagusien konbinazioak simulatzen dituen software bat garatu da eta aldi berean makinako ardatzetan konbinazio hauek ahalbidetzen dituzten CNC-rako programak. Abiadura konbinazio berezidun zikloak piezaren azken kalitatea hobetzeko gai direla egiaztatu da.

